

2013-2014 EKITEN lehiaketako sari banaketa

2014/06/16

'Ekiten' ekintzailtza-programaren VIII. edizioako enpresa-proiektu onenen sariak banatu ditu gaur Mondragon Unibertsitateak. Lehiaketa urtez urte indartuz doa, eta ikasleengan ekintzailtza-kultura txertatzea du helburu, baita ikasleek euren enpresak sortzea eta negozio berriak abian jartzea ere. Edizio honetan, Enpresa Ideia Berrien kategoria Gaztenpresak babestu du, eta Landa Ingurunea Garatzeko ideia eta proiektuen kategoria Debagoieneko eta Debabarreneko Landa Garapeneko agentziek. Biak Mondragon Unibertsitateko ikasleei daude zuzenduta. Bi horiez gain, beste kategoria bat ere izan da edizio honetan, Mondragon Educación Internacionalen Mondragon sareko unibertsitateetako ikasleei zuzendua, hau da, unibertsitate latinoamerikarretako unibertsitateetako ikasleei: UCO-Mondragon eta Unipanamericana. Kategoria bakoitzeko talde-irabazleak 1.000 euro eskuratu ditu, eta bigarren eta hirugarren sailkatuek, berriz, 500 euro talde bakoitzeko. Programako epaimahaiak proiektu bideragarrienak eta enplegu eta aberastasun gehien sortzeko gaitasuna dutenak aintzat hartu ditu irabazleak aukeratzeko orduan.

Guztira Mondragon Unibertsitateko 213 ikaslek eta unibertsitate latinoamerikarretako 46 ikaslek hartu dute parte. MUKoek 73 proiektu aurkeztu dituzte eta ikasle latinoamerikarrek 14.

Selfcare warable medical devices izeneko proiektuak, haurdunen erditze goiztiarrak automatikoki antzemateko gailuak, jaso du Enpresa Ideia Berrien kategoriako lehen saria. Kirolgoki ekimenak jaso du Landa Ingurunea Garatzeko Ideien eta Proiektuen kategoriako lehen saria, inolako kirol-instalaziorik ez duten landa-eremuetarako konponbide integrala eskaintzen duen proiektuarekin; horretarako, bezeroaren gustuetara eta beharretara moldatzen diren modulu eramangarri, modulagarri eta pertsonalizagarri batzuk eskaintzen ditu. Bestalde, Querétaro estatuko (Mexikoko) sagar-ekoizleen elkarreentzako outsourcing-aholkularitza eskaintzen duen APSI Consultoría Agrícola proiektuak Mondragon Unibertsitateak MEIren bitartez aurten aurreneko aldiz eman duen saria irabazi du; sari horretan, hain zuzen, Latinoamerikako unibertsitateetako proiektuek hartzen dute parte.


Enpresa Ideia Berrien Kategoria

Kategoria horretan 163 ikaslek hartu dute parte, 52 taldetan banatuta. **Lehen saria** irabazi duen proiektua honako hau izan da: *Selfcare medical devices*. Haurdunen erditze goiztiarrak automatikoki antzemateko gailua da. Parte-hartzaileek negozio-plan bat egin dute, emakume haurdunentzako fibronektina-detektatzaileak merkaturatuko dituen enpresa sortzeko. Saria 1.000 eurokoa da eta irabazleak Enpresa Berrikuntzako eta Proiektu Zuzendaritzako Unibertsitate Masterreko ikasle hauek dira: Mirari Egaña Aramberri, Jon Prado Vidal, Alejandro Redondo Rodríguez eta Janire Villa Andrés.

Bigarren saria *Kiwi jatetxearen* proiektuarentzat izan da. Jatetxe horretan kontsumitutako kaloria kopuruaren arabera ordaintzen da. Horren helburua kalitateko elikagaiak zerbitzatzea da, janari azkarra eta, aldi berean, osasungarria batuz. Saria 500 €-koa da eta irabazleak LEINNeko (Lidergo Ekintzaile eta Berrikuntza Gradua) ikasle hauek dira: Txomin Goñi Chourraut, Guillermo eta Cañibano del Estal.

Bestalde, Air Eco proiektuak **hirugarren saria** lortu du. Proiektuaren oinarria hau da: denbora errealean ultrasoinuen bidez irudiak sortzeko sistema bat asmatzea. Horri esker, bezeroak, ultrasoinu-ekipo eramangarria erabiliz, balizko barne-patologiak diagnostikatzeko ahalmena izango du, pertsonak hiltzeko arrisku larriari dauden egoeretan. Proiektu horrek ere 500 €-ko saria lortu du eta saridunak Sistema Txertatuetako Unibertsitate Masterreko ikasle hauek dira: Ibon Díez Lucas, Jacqueline Guzmán Rodríguez eta Carlos Alberto Rol Moreno.

Landa Garapenaren Kategoria



Kategoria horretan 50 ikasle hartu dute parte, 21 proiektu aurkeztuta. Helburua landa-eremuarekin lotutako ideiak sortzea da.

Lehen saria, 1.000 eurokoa, Kirologoki proiektuarentzat izan da. Kirol-instalaziorik ez dagoen landa-eremuetarako konponbide integrala bilatzen duen proiektua da. Horretarako, modulu eramangarriak eskaintzen ditu, norberaren gogo eta beharren arabera molda daitezkeenak. Horrez gain, proiektuak beste zerbitzu bat eskaintzen du: diseinua, muntatzea, euskarria eta bizi-ohitura osasungarriari buruzko aholkularitza. Talde irabazleko kideak Enpresa Berrikuntzako eta Proiektu Zuzendaritzako Unibertsitateko Masterreko ikasle hauek dira: Joseba Galarraga Labaka, Jon Jauregui Carrera, Julen Malet Larrea eta Joseba Requejo Garate.

Bigarren saria, 500 eurokoa, Zaindaria Zainduz ekimenarentzat izan da. LEINNeko bi ikasle, Amaia Perea Minteguik eta Garazi Uriartek, osatutako taldeak landa-eremuan bizi diren adinekoen zaindarien (batez ere senitartekoen) bizi-kalitatea hobetzeko proiektua aurkeztu dute. Horren bidez, zaindarien denbora librekoa izan, zainketa errazteko prestakuntza jaso eta esperientziak elkartrukatzeko sarea osatuko dute.

Eta hirugarren saria, 500 eurokoa, BaOH – Baserrietara Osasuna Hurbiltzen proiektuarentzat izan da. Talde irabazleko kideak hauek dira: LEINNeko Ander Arbulu Bergara, Josu Eguizabal García eta Iñigo Unanue Bereciartu eta Ingeniaritza Mekanikoko Graduoa Maialen Areitioaurtena Oartzun. Proiektuaren helburua da ariketa fisikoaren bidez baserriaren bizi-kalitatea hobetzea, inguru horretan garatu ohi diren patologiei aurre egiteko.

Mondragon Sareko Unibertsitateen Kategoria

Mondragon Educación Internacional (MEI) barruan dauden Latinoamerikako bi unibertsitateen –UCO-Mondragon (Mexiko) eta Unipanamericana (Kolonbia)– proiektuentzako kategoria bat sortzea izan da aurtengo berritasuna.

Lehen saria 1.000 eurokoa da, eta proiektu irabazlea APSI Consultoría Agrícola izenekoa da. Saridunak UCO-Mondragoneko (Mexiko-Querétano) Nazioarteko Negozioetako ikasle hauek dira: Viridiana Plaza Martínez, Jennifer Escobar Aguirre, M^a de los Ángeles Jurado Mejía eta Ana Karen Reséndiz Reséndiz. Proiektuaren helburua da Querétano estatuan sagar-ekoizleen elkarrekin proiektuaren outsourcing-aholkularitza abian jartzea. Horrela, proiektuak Querétanoko mendialdean ongizatea sustatuko luke, sagar-ekoizleei administrazio-, merkatu- eta lege-tresnak eskainiz.

Bigarren saria, 500 eurokoa, arbasoen jakiei buruzko Maloka proiektuarentzat izan da. Eragileak Unipanamericanako (Kolonbia – Bogota) Banka eta Finantzetako ikasle hauek dira: Leydi Carolina Pinilla, Andres Camilo Moreras Torres, Wilmar Andres Bonilla Albarracin, Carlos Asdrobal Mahecha Suarez eta Sindy Johanna Ardila Corredor. Proiektuaren oinarria muturreko jarduerak egiten diren gunegehienetara iristeko egokitutako ibilgailu bat da, arbasoen jakiak eskainiko dituen.

Hirugarren saria Airway proiektuak irabazi du. Saridunak UCO-MONDRAGONEko (Mexiko – Querétano) Verónica Stephane, Arriaga Smith eta Rodolfo Ramos Navarro Nazioarteko Negozioetako ikasleak dira. Proiektua Mexikoko Querétano estatuan nekazaritza, abeltzaintza eta eraikuntza bultzatzeko teknologia berriak (adimen artifiziala) eskainiko dituen ekimena da, urrunetik gidatutako dronak (tripulaziorik gabeko aire-ibilgailuak) erabiliz.